



**ZALDIBIAN BEHAR DIREN ZERBITZUEN ZERRENDA, TALDE ERAGILEKO  
KIDEEK OSATZEKO**

ZERBITZUA	PLAZAN EGON BEHAR DU? (X markatu baiezko kasuan)	BESTELA, NON?
Udaletxea	<b>X X X X X X X X</b>	
"Hogarra"	<b>X X X X X X X X</b>	
Adinekoentzat zaintza zerbitzuak (zein? Zehaztu)	<b>X X X X X X X</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Eguneko zentroa, jangela soziala, gimnasioa, pelukeria-barberia, podologoia, masajista-osteopata; Jangela soziala 3 pertsonak aipatzen dute)</b>	<b>X</b> Eguneko zentrua Artxanberrin izan daiteke
Adinekoen jarduerak aurrera eramateko espazioak	<b>X X X X X X X</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Plazan beharko luke, Dena batera, eskuera)</b>	
Kultur etxea	<b>X X X X X X X</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Karreane)</b>	Dagoen bezala <b>XX</b>
Liburutegia	<b>X X X</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Karreane)</b>	<b>X X</b> Artxanberrin. Dagoen bezala <b>XX</b>
Musika gelak	<b>X X</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Karreane)</b> <b>X (Plazan hobe baina ez da derrigorrezkoa)</b>	<b>XXXX</b> Artxanberrin
Gazte-lekua	<b>X X X X *</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Karreane)</b>	<b>X</b> Artxanberrin. <b>X</b> MEDIKU-ETXEAN <b>X</b> Edozein tokian
Gaztetxea	<b>X</b>	<b>X X</b> Itoitz etxean <b>X</b> Plaza inguruan <b>X</b> Dagoen lekuan <b>X</b> Mediku-etxean
Gizarte Zerbitzuak	<b>X X X X</b> <b>(Pertsona batek zehazten du: Udaletxean egon beharko luke)</b>	<b>X</b> Artxanberrin(?) Plaza baino diskretuagoa izango den leku batean hobe
Haur Eskola		<b>X</b> Dagoen lekuan edo Artxanberrin. <b>X X X X X X</b> Eskola ondoan Eskola edo ikaskuntza eremuetan. Lardizabal eskola inguruan.
Jangela		Eskolan. <b>X X X X X X X X</b>
Erabilera anitzeko aretoak	<b>X</b> (Haurrentzat txokoak ...)	<b>X</b> Antzokian. <b>X X</b> Herriko gune ezberdinetan Beste udal lokaletan horretarako egokitua <b>X</b>



		Dagoen tokian ondo dago, egokitu egin beharko litzateke.
<b>Etxekoentzako harrera</b>		
Berdintasuna eta emakumeen lantzeko zerbitzua		
KIROLA		Frontoia egokitu eta agian futbito zelai estali/itxi negu partean erabiltzeko. Frontoia, kirol anitzeko instalazioa bihurtuz eta, aldagelak hobetuz eta giro epeltzeko instalazioren bat aprobetxatuz

### GEHITU NAHI DUZU BESTELAKO OHARRIK?:

- **Zerbitzu garrantzitsuenak plazan nahiz eta batzuen eraikina bertan ez kokatu:**

**Zaharren egoitza, kultur etxea edo mediku etxea (adibidez) plaza eremuan egotea.** Honek ez du zertan esan nahi, eraikina bera plazan bertan egon behar duenik baina bai bertako jarduera plazakoarekin nahastu beharko litzatekela. Plazaren bizitza arratsaldekoa izatetik bakarrik egun osora luzatzea izan beharko litzateke helburua, honen onura batzuk aipatzearren: elkarbizitza, komertzioa, segurtasuna ...

Atzoko 6. Adibidea gertuago begiratzuz gero, plaza eremu berri bat sortzen dela ikusi ahalko da. Honek era askotara eragiten du inguruan, esaterako gaur mediku etxea dena plazako bizitzatik askoz gertuago legoke eta honen parte bilakatuko litzateke. Bestalde, Santa Fe kaleak plaza berria aldenik alde pasatuko luke eta gaur kultur etxe zaharrak eta udaletxeak egiten duten "barrera" hori desagertuko litzateke, beraz plazaren alde batean kotxeak igaroko liratekeen alde ireki bat egongo dela ere hausnartu beharko litzateke. Dena den, proiektu honek duen indarra eraikin berri batek izan ditzakeen funtzio integralak goraiatu nahiko nituzke, funtzio ezberdinek behar duten espazioen analisisa egin ondoren noski, baina udaletxe arrunt bat izatetik herri -etxe kontzeptu erakargarri bat izateko aukera izango luke.

Nahiz eta eguneko zentroa, gaztetxea edo gazte-lekua ez egon plazan, egiten diren jarduerak plazara ekartzea inportantea dela uste dut, denerako lekua plazan egotea zaila ikusten baitut. **Udaletxea, gizarte zerbitzuak eta kultur etxea (liburutegia barne), eta erabilera anitzeko gelak dira nire ustez beharrezkoak liratekeenak plazan.**

- **Frontoia estaltzeak helduen beharrak ase gabe utzi**

Estalpearekiko hausnarketak ere baditu bere ikusi beharreko puntuak. 6. Adibidea osoki jarraituz gero, udaletxe berria eta zaharren egoitza eraikin berrian egongo zirelarik, hauek estalpea erabili ahal izateko gertutasun batean egon beharko luke. Hau da, **frontoia estaliz gero, eserita eta lasai euritik babestua egon nahi duenak, guraso eta helduak kasu, ez lukete hau erabiliko.** Frontoi estali batek, kirol ekintza, gazte zein ume, baita bazkari edo festak barneratzen dituen moduan, ez lituzke jende heldu edo gurasoen betebeharrak beteko, hauek ez bailukete hori erabili ahalko. **Beti geratzen da ordea, eraikin bakoitzari gaur**

**egun terrazek duten moduan beraien aterpea jartzea** ... honekin esan nahi dudana da, estalpe bakoitzak kokapenez haratago, funtzio batzuen menpe egongo dela eta hauen betebeharrei erantzun beharko dizkio.

Ekarpena: Itxaroten duten gurasoentzako, portxe bat.

- **Erabilera anitzeko gelak behar**

Nik uste dut, zerbitzu batzuk bikoiztu egiten direla zerrenda osoa kontutan hartuz gero, Adinekoen jarduerak, gazteenak edo gaztetxoek erabilera anitzeko aretoetan eraman daitezke aurrera, areto horiek konpartituak izatea garrantzitsua iruditzen zait.

Norbaitek bileran aipatu zuen eta ideia ona iruditu zitzaidan. Gaur egungo udaletxea eta kultur-etxe zaharreko eraikinak bota eta alde-aldeko **eraikuntza handi bat** egin beharko litzaketela uste dut. **Bertan udaletxea, gizarte zerbitzuak, hogarra, adineko zentroa eta erabilera anitzeko aretoak** jarriko nituzke.

Alde negatiboa, eramandako materiala beti erretiratu egin behar da, eraman-erretiratu, eraman-erretiratu....

- **Gazteak eta adinekoak herrian mantentzeko ahalegina**

Gaur egun Zaldibitik beste herrietako eguneko zentroetara joaten dira. Helburua: *zailtasunak dituzten herriko adinekoak, herrian gelditzea da. Herrian zentroa izanez gero, litekeena etxean bakarrik daudenak ere gerturatzea eta herrian antolatzen diren ekintzetan parte-hartzea edo ongi pasatzea.*

Udaletxe zaharra bota eta eraikin osoa erabiliko nuke adinekoen zerbitzurako: hogarra, eguneko zentroa, gizarte zerbitzuetako bulegoak ere bertan jar daitezke, ikastaroak edo ekimenak burutzeko gelak eta sor daitezkeen gainerakoak.

Adinekoen zerbitzuak, nik espazio bateratu batean imajinatzen ditut (Ordizian dagoen moduan), erainkin berdinean: "hogarra" (jubilatuentzako elkarte) eta adinduentzako zerbitzuak eskeintzea erreztuko duen espazioa. Zerbitzu horien artean, goian jarri dudana bezala, nik jangela sozial bat apuntatuko nuke, hau da, otorduak bakarrik prestatzen eta egiten dituzten adnauak elkarekin bazkaltzeko aukera izan dezaten (Agian, beraiek kudeatuta).

Denok dakigu umeak eta gazteak herrian mantentzea duen garrantzia, herri bizi bat izateko. Adinekoek ere bertan mantentzeak herria bizituko du.

Gazte Lekua dela eta, aurreko legealdian aipatu nion zinegotziari, Gaztetxera joaten ez diren gazteak badirela herrian eta Gazte Lekua adin muga batekoentzat bakarrik denez, horientzako ere beste espazio bat pentsatu beharra zegoela. Geratzen zaien aukera bakarra taberna edo kalea delako, edo norbaiten etxea.

Udalak Gaztetxerako lokal bat izatea, gazteen auto-kudeaketarako gaitasuna murrizten duela iruditzen zait, nik, beraiek bilatzen duten eta proposatzen dituzten aukerei erantzungo nieke, baina ez lokal jakin bat espreski gordeta.

- **Beste ekarpenak**

1. *Musika gelak* akustikoki oso ondo egokituak izan behar dute. Hala ere, askotan, arazoak sorten dira bizilagunekin.
2. Gaur egungo Lardizabal eskolaren "U"aren barruan eraikuntza sortuko nuke, hau da U-batetik karratua izatea pasatuko litzake eta bertan *jangela eta haur eskola* kokatu.
3. Eraikin berrian herriko elkarteentzako biltegi edo txoko txikiak (materiala uzteko) eremu komunekin konbinaturik.

- **Metodologiari ekarpenak**

Azkenik, atzoko lan modua oso praktikoa eta emaitzez beterikoa izanik ba da kontuan hartzeko zerbait: Estalpe edo eraikin berriak "planos de planta" deritzon formatuan ikusi ezker, askotan espazio perspektibak galtzen dira, eta benetan izan ditzaken inpaktu positibo zein negatiboak ez antzeman. Oso zaila izaten da, ohitua ez dagoen batentzat, Frontoia estaliz gero itxura nabaritzea edota udaletxea tokiz aldatuz gero hutsuneaz konturatzea ... agian argazkiekin ere landu beharko litzateke eta kollage modu batzuen bitartez etorkizuneko aukerak islatzen saiatu.